

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko martxoaren 7a. IX. urtea. 2.374. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Emakumeen borrokak eskualdean ere isla izango du hamaika ekitaldirekin

Erakusketa bat baino gehiago den Aurrez Aurre ekimena aurkeztu dute Tolosan; apirila arte luzatuko dira ekitaldiak, eta etzi Aranburu jauregian erakusketa inauguratuko dute

Amaia Zalba Leitzako eta Aresoko udaletako Berdintasun teknikari berriak esan duenez, «aukera berdintasuna herritik herrira indarrean jartzea da helburua» **o2-3**



Josebe Iturrioz, Ibai Iriarte eta Miren Urkola, atzo, Tolosan egindako agerraldian. E.MAIZ

Euskarari buruz hausnartuko dute Leitzan eta Areson

Egiten ari diren lanean bide onetik doazen jakin nahi dute euskara zerbitzutik **o7**

Mendi Tour Tolosaren bigarren egunean, sei pelikula ikusgai

Josu Bereziatuak mendizaletasunari buruz duen ikuspuntua emango du bere filman **o5**

Patxi Alkortari omenaldia egingo diote aurtengo Aiztondo Klasikoan

Igandean jokatu da txirrindulari proba, eta Alkizan hasi eta Larraulen bukatuko da; lasterketaren ondoren, hainbat urtetan antolakuntzan aritu zen Patxi Alkorta omenduko dute Aburuza sagardotegian **o6**

Lan erreformaren aurkako deialdia egin dute ELAk eta LABek

Legea «eraso bortitza» dela diote, eta greba orokorrean parte hartzera deitu dute **o4**

Inauterietan hitza[™] egunero argitaratuko dugu!



Inauterietako Argazki lehiaketa



• Saria:

Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen

Astobietan nekazal turismoa

bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• Argazkiak nora eta noiz bidali:

thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 9a bitarte

Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!

Parekidetasuna lortu bitarte



V. Topaketa Femisitek ia 600 lagun elkartu zituzten, Leitzan. A. IMAZ

Emakumeak protagonista dituen Aurrez Aurre ekimena etzi inauguratuko dute, Aranburu Jauregian, 19:00etan

Eneritz Maiz

Bihar, martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da. Egun honen bueltan, aldarrikapenerako urtero hainbat ekitaldi izaten dira. 1910. urtean, Emakume Sozialisten Nazioarteko Biltzarra egin zen Kopenha-

gen, eta nahiz eta ehun urteetik gora pasa, aurten ere, kolore morez markatutako eguna gogora ekarriko dute eskualdean.

Ekitaldiek, parekidetasunerako bidean egiteko dagoen lana izango dute ardatz. Emakumeen borrokak aurrera jarraitzen duenaren seinale izango dira.

Asteburuan bertan, Bilgune Feministak antolatuta, Leitzan, V. Topaketa Feministak izan ziren. Ia 600 lagunetik gora elkartu ziren, eta aurreikuspen guztiak hautsi zituzten. Bilgune Feministakoak, topaketetatik martxoaren 8ra, «indarberriturik» datoz. Hamar urte bete dituzte, eta hori ospatzeaz gain, ibilbideari errepa-soa egin eta berretsi egin zuten, 2002. urtean eginkoa: «Euskal Herriari emakumeon eskubideen aitorza eta bidezko harreman ereduak helburu dituen proiektu

↓ Emakumearen Nazioarteko Eguneko egitaraua

ABALTZISKETA

■ **Martxoak 8, osteguna.** Bazkaria egingo dute, 13:30ean Larraizko Nañarri Sagardotegian.

ADUNA

■ **Martxoak 8, osteguna.** 17:30ean, merienda tertulia egingo dute herriko emakumeekin, Txulobi elkartean.
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** 22:00etan, *80 Egunean* filma, Kultur Aretoan.
 ■ **Martxoak 10, larunbata.** Afarria Hernialdeko Elketa jatetxean. 20:30ean Uztartzan elkartuko dira.

ALBIZTUR

■ **Martxoak 8, osteguna.** Berdintasunaren aldeko kafe tertulia egingo dute, 15:00etan, udaletxeko hitzaldi aretoan. Ana Elozegi psikologoa izango da.
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** 19:00etan *Izarren Argia* filma eskainiko dute udaletxean. 21:00etan, afaria egingo dute Tolosako Jubilatuen zentroan.

ALEGIA

■ **Martxoak 8, osteguna.** 18:00etan tailer mekanikoa, *Ezagutu zure kotxea.* Teoria eta praktika.

■ **Martxoak 9, ostirala.** 20:00etan elkarretaratzea plazan, eta 21:00etan zahagiardoa egingo dute.

ALKIZA

■ **Martxoak 10, larunbata.** 21:00etan afaria egingo dute Ostatuan.

ALTZO

■ **Martxoak 8, osteguna.** Emakumezkoak. *Isilpeko urteak* dokumentala eskainiko dute 17:00etan udaletxean. Guztientzat txokolate beroa izango da.
 ■ **Martxoak 10, larunbata.** Emakumeek afaria egingo dute Segoretxen.

AMEZKETA

■ **Martxoak 8, osteguna.** Arratsaldean jubilatuek merienda egingo dute Behar Zana jatetxean. Afaria Zalbide sagardotegian, 20:30ean plazan edo 21:00etan sagardotegian elkartuko dira.

ANOETA

■ **Martxoak 9, ostirala.** Hitzaldi proiektzioa, 17:30ean, kiroldegian. *Emakumeak eta osasuna: gure gorputzaren energia, burujabetza, autoestimua eta elka-*

dura. Jone Arrospide Qi-Gongeko irakaslearekin. 19:30ean, Mikelasagati auditoriumean, *Sarean Zintzilikatua* antzerkia.

■ **Martxoak 9, ostirala.** Afaria egingo dute, 21:00etan, jubilatuen egoitzan.

BERASTEGI

■ **Martxoak 9, ostirala.** Emakumeen arteko herri kirolak egingo dituzte, arratsaldean. Ondoren, hitzaldia izango dute, eta gauetan afaria Basurde Elkartean.

BERROBI

■ **Martxoak 9, ostirala.** Berrobi emakumeek, Solastokin egingo dute afaria.

IKAZTEGIETA

■ **Martxoak 8, osteguna.** 19:30ean *Gezurrezko printzea* antzerkia izango da udaletxeko aretoan. Ondoren, 20:30ean elkarretaratzea egingo dute zuzibian.
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** Afaria egingo dute Ostatu tabernan.

IRURA

■ **Martxoak 7, gaur.** 17:00etan, kafe tertulia izango da adineko jendearentzat. Aztergaia, *80 egunean* filma.

■ **Martxoak 8, osteguna.** Munduko emakumeak, kareta margoketa, ludotekan 17:00etan. Ikastolako ekitaldi aretoan, berri, 17:15ean, emakumea antzezle, antzerki tailerra izango da. 17:50ean, Gaztelekuan marrazki lehiaketara lanak aurkezteko eguna eta sari banaketa. Aurkeztutako lanak erakusgai jarriko dira kulturunean. Ondoren, Berdinbidea proiektuaren azalpena. 19:00etan, Kulturunean, Loatzko Musika eskolako ikasleek eta hainbat gonbidatuk musika emanaldia eskainiko dute.

■ **Martxoak 9, ostirala.** Amaia Agirre eta Onintza Enbeitarekin bertso afaria Zarretxean, 21:00etan.

LARRAUL

■ **Martxoak 9, ostirala.** 19:00etatik 20:00etara, eskulan tailerra eta 21:00etan, Ostatuan afaria egingo dute.

LEABURU-TXARAMA

■ **Martxoak 8, osteguna.** Afaria Leaburuko Ostatuan egingo dute, 20:00etan.

UGARTE

■ **Martxoak 10, larunbata.** Ugarteko elkartean bazkaria egingo dute, 14:00etan.

TOLOSA

■ **Martxoak 8, osteguna.** Las Korain ikastolan 09:00etatik 11:00etara tailerrak egingo dituzte. Arratsaldean, *Emakumeok Plazara* ekimena Zerkausion. Tolosako emakume artistekin elkarlanean, 16:00etan mural pintaketa. 18:00etan emakumeen sorkuntzari oihartzun eman asmo dion *Emakumeok plazara* ekitaldia: monologia, abeslariak, akrobazia... Emakume sorkuntza kalean. 19:30ean elkarretaratzea egingo dute Zerkausion: *Euskal Herriaren aldaketa ezinbestean feminista.*
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** 21:00etan afaria izango da Oargi elkartean.

AURREZ AURRE 2012

■ **Martxoak 8, osteguna.** 18:30ean, Arte Feminista kalea okupatzen, Zerkausion.
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** 19:00etan Aurrez Aurre inauguratuko dute Aranburu jauregian, eta Berdintasun Sarien banaketak egingo dute. 20:30ean, *Sin Balas* antzezlan, Leidorren.

■ **Martxoak 10, larunbata.** Ikus entzunezko tailer feministak, 10:30-14:30/15:30-18:30. Ospakizuna Alurtxiki auzo elkartean izango da.

■ **Martxoak 16-17.** Birziklapen tailerra, ostiralean 17:00etatik 20:00etara. Larunbatean 11:00-13:00/16:00-19:00era Dolo Navas eta Tytti Thusberg.
 ■ **Martxoak 23-24.** Ikus entzunezko tailer feminista.
 ■ **Martxoak 26-29.** Argazki tailerra Ana Belen Jarrinen eskutik, 16:00etatik 20:00etara.
 ■ **Martxoak 30.** Ikus entzunezko tailer feminista.
 ■ **Martxoak 31.** Autodefentsa feminista (Bilgune feminista)
 ■ **Apirilak 12-14.** Teatro de la Oprimida.
 ■ **Apirilak 14.** Amaiera festa.

VILLABONA

■ **Martxoak 8, osteguna.** Bilkurara egingo dute 20:00etan, Berdura plazan.
 ■ **Martxoak 9, ostirala.** Fibromialgia hitzaldia, 17:00etan izango da udaletxeko balioanitzeko gelan.
 ■ **Martxoak 10, larunbata.** Mamiki emakumeen batukadarekin poteoa egingo dute, herriko kaleetatik. 12:00etan, Berdura plazan elkartuko dira. Ondoren, bazkaria egingo dute 14:30ean, Olentzo Jatetxean.

ZIZURKIL

■ **Martxoak 8, osteguna.** Joxe Arregi plazan elkarretaratzea egingo dute, 19:00etan. Atxulondo kultur etxean, 19:30ean, antzerki foruma antolatu dute: *Konprimatuak.* Axier Baglietoren bakarrikizetak eta ondorengo eztabaidak osatzen du.
 ■ **Martxoak 10, larunbata.** Egun pasako irteera antolatu da: Idiazabalgo gaztandegia eta Beasaingo Igartza bisitatu-ko dituzte. Bazkaria Beasainen bertan izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

politiko feminista eskaintzen jarraituko dugu». Sortutako helburu berdinei jarraiki, «bizi dugun abagune historiko eta sozio-politiko honetan, inoiz baino ozengago eta irmoago aldarrikatzen dugu Euskal Herria gatazkarik gabeko eszenatoki batera zuzentze bidean, feministon ekarpena eta beraz, mugimendu feministaren aitorza politikoa ezinbestekoak direla», diote.

Haratago doan, Aurrez Aurre

Ekainean hasi zen lanean Tolosako Emakume Artistak taldea, eta ostiralean 19:00etan inauguratuko dute ekimena, Aranburu jauregian. Miren Urkola Berdintasun zinegotziak hirugarren Aurrez Aurre «osatuagoa eta parte hartzaileagoa» izan dela adierazi du; «Taldea handia da, eta beraiek izan dira hau aurrera eraman dutenak. Erakusketa baino zerbaite gehiago da. Emakumeek erakusteko tokiaz gain, sortzeko lekua behar dute, elkartzeko eta elkarri laguntzeko».

Ibai Iriarte alkateak nabarmendu duenez, Aurrez Aurre erakusketak «atzean duen taldea eta egiten ari diren ibilbidea» dira garrantzitsuak. «Munduak beraiek behar dituela erakusten ari dira, eta sorkuntza honetan asko dutela esateko eta egiteko». Talde honetan parte hartzeko deia luzatu zieten gazteei nahiz helduei.

Beka baterako deia

Zizurkilgo Udalak, emakumearen gaiaren inguruan beka aterako du laister. Herriari begira, «zabal eta zehatz aztertu beharreko gaia dela iruditzen zaigu eta diagnosi bat burutu ahal izateko beka jarriko dugu abian», adierazi dute. Gainera, duela gutxi, udalak Parekidetasun batzordea sortu du. Herriari irekia dagoen batzordea izango da, eta «guztionean parte hartzetik hazi nahi du». Hiler, lehenengo astelehenean bilzen dira, eta atek zabalik daude. Hurrengo bilera, hilaren 19an, 18:00etan, izango da.

Bestetik, Berastegin, ostiralean ospatuko dute eguna, eta aldarrikapenerako, emakumeen arteko herri kirolak antolatuko dituzte. Ahalik eta jende gehien apuntatzea lortu nahi dute, eta gazte eta helduak animatu nahi dituzte. Apuntatzeko epea gaur bukatuko da, eta ohiko lekuetan eman ahal da. Albizturren, afaria egingo dute Tolosako Jubilatuen zentroan, eta afarira joateko izena udallexera deituta eman behar da, gaur eguerdia baino lehen. Ugarten, larunbatean egingo dute bazkaria, eta izena 943 65 44 92 edo 943 56 33 17 telefono zenbakira deituz eman behar da. Anoetan, **Sarean Zintzilikatua** antzezlan izango da, eta sarrerak ordu erdi lehenago jarriko dituzte salgai aretoan, (102 lagun). 17 urtetik gorakoek lau euro ordaindu beharko dute, eta hortik beherakoek, berriz, bi euro.

Amaia Zalba ◉ Leitzaldea eta Aresoko Berdintasun teknikaria

Leitzaldea eta Aresoko udalek emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lantzeko Berdintasun teknikaria jartzea erabaki dute. Amaia Zalba ariko da zeregin horretan, eta hasiberria den arren, dagoeneko bi herrietako eragileekin biltzen ari da.

«Borondatea eta lanerako gogo izugarria ikusi dut»



A BELAUNZARAN

Agurtzane Belaunzarán Leitzaldea

Leitzaldea Udaleko bulegoa estreinatu berri du Amaia Zalbak. Berdintasunerako teknikaria izango da datoen urteetan, eta «Leitzaldea eta Areson berdintasun politikak ezartzeko borondatea» badela azaldu du.

Zalba hasia da bilerak egiten eragileekin, eta Berdintasun Planaren finkatu eta aukera berdintasunean bizi eta hezteko politikak zein bizi arauak proposatuko dizkie. Helburua «aukera berdintasuna herritik herrira» indarrean jartzea da.

Berdintasunerako teknikari zara Leitzaldea eta Areson, hasi berri zara lanean eta lanpostu berria da gainera udal mailan.

Nafarroako Gobernuak azken lau urteetan berdintasunerako politikak jarri ditu martxan, 17 teknikari gaude guztira. Ulitzamako mankomunitatean nago ni—Aran eta Goizuetan orain arte— eta aurtun Leitzaldea eta Areson lan egiteko aukera izango dut. Berdintasunean lan handia dago egiteko.

Zein izango da lehen urratsa?

Bi herrietan talde eragile bana sortuko dugu. Oraingoan, talde eragileei nire burua aurkezten hasi naiz. Leitzaldea asko ditugu eta guztiekin bildu nahiko nuke: politikariak; hezkuntza, kultur eta kirol arlokoak; euskara taldeak; Bil-

gune Feministako kideak; Gazte-txekoak; guraso elkarteak; ehiztari elkarteak kideak... Herrietarrek ere bildu nahi dit. Areson bildu naiz batzuekin. Dena artean egin behar dugu berdintasun politikak ezartzeko elkarlana, eta oraingo borondatea eta lanerako gogo izugarria ikusi dut.

Berdintasun plan bat egin beharko duzue orduan, ezta?

Halaxe da, Leitzaldea bada 2007an eginiko diagnostikoa eta guk hau eguneratu beharko dugu. Krisiak ere, aldaketa handia eragin du gizaritean eta hau kontuan hartu beharko dugu. Diagnostika uda amaierarako bukatua izatea espero dut eta gero berdintasun planaren helburuak aztertu beharko ditugu. Aresoren kasuan berriz, herritarrek bilerak egin ostean datu bilketa egingo dut.

Zeintzuk uste duzue izango direla Berdintasun Planaren ildo nagusiak?

Hainbat alorretara lotua dago berdintasun plana; hezkuntza, kirola, hirigintza, indarkeria, osasuna... Baina niretzat nagusia hezkuntza da, eta ez soilik eskolako, gizaritea aukera berdintasunean hezi beharra dago. Hezkuntza hori emanez gero, hainbat arlotan aplikatuko delako; kirolean, hirigintzan, indarkerian, osasunean... Sentsibilizazio lana ere hezkuntzari loturik doa.

Nafarroan emakumeen kontrako indarkeria salaketak gehitu egin ziren 2011n...

Salatutako kasuak dira hauek, baina indarkeria modu askotan ematen da, ez naiz hildakoez bakarrik ari. Indarkeria esparru askotan ematen da, etxean, kalean, lanean, eskolan... Emakumeenganako errespetu falta handia dago oraindik gizaritean. Dena oso barneratuta dugulako, emakumeak menpeko gara. Eta errespetu falta hau ez dute gizonen kasu bakarrik egiten, emakumeak ere tartean daude.

Herritarrek, berdintasun politikak indarrean jartzeko gogoia dutela azaldu duzu.

Halaxe da, jende askok galdetu dit ea nola jorratu dezaketen berdintasuna beren alorretan, kulturaren edo kirolean adibidez. Horregatik, formazio saio bat jarriko dugu martxan. 20 orduko izango da eta eragile ezberdinek parte hartuko dute, berdintasun plana nola aplikatu ikasiko dute. Azken batean, formazioak begiak irekiko dizkie. Hau jaso ondoren, bakoitzak bere esparruan gai izan beharko du berdintasuna lantzeko. Nik ikuskatzaile lanak egingo ditut, eta zalantzak argituko dizkiet. Zerbitzu honen asmoa ez da ekintzak hemendik bideratzea, eragileei aholkularitza lana egitea baizik.

Berdintasunean bizitzeko lan handia dago oraindik egiteko, ezta?

Ikaragarri! Genero ikuspuntua berdintasunean aplikatzen dugula uste badugu ere, oker gaude. Rolak barneratzen ditugu txikitatik, eta hau aldatzea oso zaila da. Gabonetako opariak ikusi besterik ez dago; neskentzat pampinak, umeen zaintza barneratzeko eta mutilek jostailuak, asko, gainera, indarkeriarekin lotuak. Ustekabean gure neska-mutikoak ezberdin hezten ditugu. Eskolen kasuan adibidez, jolas orduan patioan espazio handiena futbol jolastek hartzen du. Eta nortzuk jolasten dute? Mutilek. Nahi gabe, egiten diren gauzak dira, baina landu beharrekoak.

Kirol kontuak aipatu dituzula, Leitzaldea eta Areson kirolari profesional mordo dago eta guztiak gizonenak. Kasualitatea ote da?

Emakumeen kirolak komunikabideetan jasotzen duen tratamenduaren ispilua besterik ez da. Nor ikusten dute pantailaren bestaldean, frontoian, plazan edo errepidean txirringa gainean? Gizonen kirolarien erdua jasotzen dugu nahigabe. Emakumeen kirola badago, baina ez da ikusten, gizaritearentzat ez da existitzen, beraz. Helburu bakarra, emakumeek eta gizonen aukera berdinaratzea da.

◉ leitzaldea@hitza.info



LAB sindikatuko ordezkariek, ezkerreko irudian, eta ELA sindikatuko ordezkariek, eskuineko irudian, lan erreformari buruzko agerraldietan. GOIERRIKOHITZA



ELAk eta LABek lan erreforma «eraso bortitza» dela salatuko dute

Hilaren 29ko greba orokorrean parte hartzeko deia luzatu diete sindikatuek Tolosaldeko langileei

Erredakzioa

ELA eta LAB sindikatuek PPko gobernuaren lan erreforma langileen eskubideei azken hamarkadetan egin zaien «erasorik bortitza» dela uste dute, pasa den astelehenean Beasainen egindako agerraldietan azaldu zuten. Bide honetan, «beharrezkoa» iruditzen zaie hilaren 29ko greba orokorrak «erantzun zabal» izatea, eta bertan parte hartzeko deia luzatu diete, Tolosaldeko nahiz

Goierriko langileei, bakoitzak bere aldetik.

LAB sindikatuek, bere aldetik, Raxoiren gobernuak «patronalaren eta kapitalaren mesedetan» egindako lan erreforma «inposatu» duela esan zuen. ELAren ustez, berriz, «aitzakia» da enplegua sortuko dutela esatea: «Lan erreformaren erakutsu helburua langileen soldata erasotzea eta jaistea da».

Bi sindikatuek bat dute, erreforma honekin PPren gobernuak kaleratzea merketu egin dituela esatean. Oihana Lopetegui LABeko ordezkararen arabera, aurrerantzean enpresariak enplegu erregulazioko espedientea zuzenean egin ahal izango du; ez du administrazio publikoaren baimenik behar.

LAB eta ELAren arabera, kontratazioa orain artean «ezegonkorra» baldin bazen, «orain are gehiago ezegonkor» du Espainiako Gobernuak». Sindikatu abertzaleek, adibide gisa, 50 langiletik beherako enpresek, urtebeteko froga-aldidun kontratuak egiteko izango duten eskumena nabarmendu dute: urtea gainditzen ez duen langilea, inongo kalte-ordainik gabe kaleratu ahal izango dute, froga epea gainditu ez duela argudiatuta. Prestakuntzarako kontratua ere, lehen baino «ezegonkorragoa» dela uste dute, eta adina ere luzatu egin dute. Aldi baterako lan enpresei dagokienez, berriz, eskumen gehiago eman dietela salatuko dute ELAk eta LABek, eta aldi baterako kontratuak ezin izango dira

kateatu 2013ko urtarrilera arte. Azkenik, jardunaldi partzialeko kontratuetan aparteko orduak egin ahal izango dira.

«Malgutasuna ekarriko du»

LABen iritziz lan erreformak malgutasuna ekarriko du: «Zapaterok onartu zuen jardunaldiaren %5a, enpresariak nahi bezala erabili ahal izango dute». ELAko ordezkariek arabera, berriz, lehen ezinezkoa zen «neurri bidegabea» orain posible izango da, eta, soldata jaisteko aukera izango dute enpresariak: «Horren aurrean langileei uzten zaien aukera bakarra, 20 eguneko kalte-ordaina kobratu, eta enpresatik alde egitea da».

Era berean, erreformaren arabera, bajaran dauden langileak ka-

leratzeko eskubidea izango du enpresariak, eta neurri hau ere gaitzetsi dute sindikatu abertzaleek: «Gaixo egon arren, lan egitera behartu ditzakete langileak, kalera-teea nahi ez badute, behintzat».

LABeko Oihana Lopetegiren arabera, gainera, negoziazio kolektiboa ere «ahulduta» geratu da: «Enpresako itunei erabateko lehentasuna eman diete. Hitzarmen kolektiboaren indarraldia bukatu eta bi urtera, beste akordioak ez dagoen bitartean, hitzarmen horrek indarra galduko du».

LABen ustez, erreformak lan harremanetarako euskal esparrua eratzea «beharrezkoa» dela erakusten du. Sindikatu abertzalearen ustez, eredu sozial berri bat behar dute Euskal Herriko langileek: «Eredu sozial hori ez da langileok behar duguna izango, ez bada Euskal Herrian, eta langileria parte hartzearekin erabakitzen eta eraikitzen». Horretarako, sindikatuak esandakoaren arabera, Euskal Herriak burujabe izan behar du, eta herritarren esku utzi behar ditu eredu ekonomikoaren eta sozialaren erabaki nagusiak.

ELA sindikatuaren ustez, «asko kostata lortutako eskubideak hilabetetan ezabatzen» ari dira. Horren aurrean, mobilizazioa beste biderik ez dute ikusten. Bide bera daramaten eragileekin lanean aritzeko aukera zabaldu egin dela diote: «Arrazoi ugari dugu eraso horien aurrean greba egiteko, baina ez dugu erresistentzia borrokan bakarrik geratu nahi».

ELAk eta LABek, hilaren 29a baino lehen hainbat jardura antolatuko dituzte, bakoitzak bere aldetik.

Erosi
KILOMETROAK 2012ko jantziak
euskalherrikoplaza.com-en:

www.euskalherriko
PLAZA.com

UNEGIN

18 film 18 eurotan ikusteko aukera, bono bikoitzarekin, Tolosan

Datorren astelehenean, martxoaren 12an, bonoak erosteko azken eguna izango da Leidor aretoko lehiatilan

Itzea Urkizu Tolosa

Leidor aretoan, martxoan nahiz Aste Santuko oporraldian eskainiko dituzten 18 filmak, 18 euroren truke ikusi ahal izango dira bono bikoitzarekin. Berau, nahiz bono arrunta eskuratzeko azken eguna datorren astelehenean izango da, 17:00etatik aurrera, Leidorreko lehiatilan.

Bono arruntari dagokionez, edozein saiotarako balio duenak 13 euroko prezioa du, eta gaueko

saioetakoak, berriz, 10 eurokoa. Nahi izanez gero, ordea, martxo-ko saioak nahiz Aste Santuko oporraldikoak ikusteko bonoa ere eskuragarri izango da; 14 euro balio du gaueko saioetako bonoak, eta 18 euro edozein saiotarako balio duenak. Azkenik, haurrentzako zine saioetarako ere bono berezia eros daiteke: 4 film 5 euroren truke ikus daitezke.

Asteburu honetan hasi, eta Aste Santura bitarte, honako filmak proiektatuko dituzte Leidorren: *J. Edgar, Katmandú, Arrugas, Caballo de batalla, Albert Nobbs, La plaza de la música, The artist, Cita en San Luis, La invención de Hugo, Mi semana con Marilynn, Young adult, Moneyball, The Turin horse, Shame* eta *Intocable*.

→ Laburrak

Garroren 'Kontrarioa', Galtzaundi irakurle taldean

TOLOSA > Bihar, Galtzaundi irakurle taldearen saioa izango da, Tolosako kultur etxean, 19:30ean. Bertan parte hartzeko irakurri beharreko liburua, Lander Garroren *Kontrarioa* izango da oraingoan, eta idazleak berak ere parte hartuko du saioan.

Koloneko minbizia saihesteko sukaldaritzak

TOLOSA > Gaur, 19:00etan, koloneko minbiziaren prebentzioarako sukaldaritzaren inguruko hitzaldia izango da Tolosako Sukalde elkartearen Donostia ospitaleko Luis Bujanda doktorea izango da hizlaria, eta Javier Arreseigor sukaldaria ariko da janariarekin. Sarrera doan izango da.

Mendi irudien egarriz

Mendi Tour Tolosaren bigarren eguna da, gaur; besteak beste, Josu Bereziartua mendizaleak bere filma aurkeztuko du

Imanol Garcia Landa

Mendi Tour Tolosa jaialdiaren bigarren eguna da gaur, eta, atzo bezala, hainbat film ikusi ahaliko dira Leidor aretoan. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarrerak bost euro balio ditu. Gaur sei film emango dituzte: *Wildwater* (30'), ur-lasterren adimenera eta arimara egineko bidaia; *The hardest of the Alps* (12'), Iker eta Eneko Pou anaiek Alpeetako klasikoei eginko bisita; *Linea continua* (17'), lau belaunaldi biltzen dituen abentura; *The swiss machine* (24'), Ueli Steck mendizaleak egin dituen abiadura markak erakusten dituen; *Next Time Inshallah* (30'), Alex Txikon eta beste mendizale batzuk Gasherbrum I gailurrean 2011ko neguan egindako ahalegina; eta *Broad Peak, Hastapeneta-ritzulera* (28'), Josu Bereziartuak mendizaleak eginiko filma. Guztiak jatorrizko hizkuntzan emango dira, euskarazko azpi tituluekin.

Hain justu, Josu Bereziartua (Azpeitia, 1960) Leidor aretoan izango da, bere filma aurkezteko eta, hala suertatuz gero, ikusentzuleen galderei erantzuteko. Eskarmentu handiko mendizalea da Bereziartua; 30 bat espedizio eginak ditu, horietatik asko Himalayan eta Karakorumen. Bere filman, Broad Peak tontorrera «lagunartean» eginiko goera jasotzen du. «Bizitzan gauzak asko aldatzen dira», dio mendizaleak; «bilbide luze batean, hasiera bateko nahiak eta gogoak poliki-poliki aldatzen dira. Hasieran denak balio du: edozeinekin, edozein modutara, edozein lekura... Ni aldatzen joan naiz, ideiak aldatu egiten dira eta beharrak ere bai».

«Mendi bat igo, besterik ez»

Filmaren tituluak dion moduan, hastapeneta itzuli izan nahi du espedizio horrekin: «Hasierako garai haietara itzuli nahi izan dut, inongo konpromisorik gabe, presiorik gabe, mediatikoki azalpenik eman beharrik ez genduen garai haietara itzuli. Jende bat elkartu, mendia igotzea gustatzen zaiona, gutxi gorabehera ideia berdintsuak elkarbanatzen dituguna, bai mendiaz eta bai etikaz, eta mendi bat igo, besterik ez».

Bereziartuak gaineratu duenez, «askotan joaten gara gauza arraroak bilatzera, baina azkenen, oso gauza simplea da. Niri, behintzat, mendia igotzea gusta-

zen zait, eta igotze horretan sentitzen dudanak bete egiten nau. Gainera, lagunekin, gustuko mendira eta gustuko estiloan igotzeri, niri beteta uzten nau. Horregatik, gaur egun ez dit balio edozeinekin joatea, edozein lekutara edo edozein modutara».

Mendizaletasuna «oso pertsonala» dela esan du Bereziartuak. «Nire iritzi, zoritxarrez, mendira igotzea gaur egun lehiaketa bate-

an bihurtu da. Garai batean mendira joatea lagun talde baten erronka zen, eta beharbada, herri batek antolatzen zuen halamoduzko ekimena. Baina egun Olinpiar Jokoen moduko lehiaketa batean bihurtu da: zeinek denbora gutxiagoan egin, zeinek kanpalekurik jarri gabe, zeinek oxigenorik gabe... Niri mendian zenbakiek eta kopuruek ez didate bultzatu».



Josu Bereziartua mendizalea. OLATZ PRAT/UROLAKOSTAKO HITZA

DAGOENKO 56.000 LAGUN ALDATU DIRA BIZITZAREN ALDE SIMPLE-RA. ETA ZU?

TELEFONIA MUGIKORRA ALDATU EGIN DA SIMPLE

5 ZENT. / MIN. NOIZNAH. NORNANHRI. BETI.

euskaltel

Konsumo garrantzitsua. Informazio gehiago: euskaltel/simple.com

Estaneko dirak. Ez dira eskaintzen sartzen zenbakirik bereziki berezikiak, norringu eta rustiarretakoak. Ezertze-koztua 15 zent. Hileko gutxienezko kontsumoa: 6 € BEZa ez dago sartuta.

Aiztondo Txirrindulari Klasikoa Patxi Alkortaren Oroimenezkoa ere izango da

Txirrindulari proba amaitzean, 14:45ean, Adunako Aburuza sagardotegian Alkorta omenduko dute

Asier Imaz

Orain arte, Aiztondoko Klasikoa zuen izena bailaran antolatzen den txirrindulari probak, baina aurten, bederatzigarren edizioa jokatu den honetan, Patxi Alkortaren Oroimenezkoa erantsiko diote. Gauzak horrela, hilaren 11n, igandean, IX. Aiztondoko Klasikoa I. Patxi Alkortaren Oroimenezkoa lehiatuko da.

Irteera Alkizan 10:00etan hartuko badute ere txirrindulariek, lehen kilometroak lehiatu gabe egingo dituzte. Patxi Alkorta zenaren etxetik pasatzean, Zizurkil, zinta moztu eta lasterketa hasiko da. 140 kilometro egin ondoren, helmuga Larraularen egongo da.

Antolatzaile lanetan, Asteasu-ko Aitz-Ondo, Zizurkilgo Urkamendi, Adunako Txulobi eta Amasa-Villabonako Irrintzi elkarteak kideak aritu dira, guztira ehun lagun inguru. Urtero proba gogorra izaten da, eta aurtengoan

↓ Ibilbidea

140 KILOMETRO

- **Irteera.** 10:00etan Alkizatik irteango dira txirrindulariak.
- **Herriz-herri.** Alkiza, Asteasu-ko bidegurutzera, Zizurkil, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Alegia, ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo eta Ordizia.
- **Itzulera.** Bide beretik Alkizako bidegurutzeraino joango dira, hemen, Larraulgo bidegurutzetik Asteasura iristeko.
- **Itzuliak.** Zirkuituari lau itzuli emango dizkiote. Azken itzulian, Alkiza herrira igoko dira. Ondoren, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Asteasu, Zizurkil, Aduna, Villabona zeharkatuko dituzte.
- **Helmuga.** Villabonatik Larraulgo gaina igoko dute, bertan egongo da helmuga. Antolatzailen aurreikuspenen arabera, 13:30ak inguruan amaituko da proba.

ere mendate maldatsuk igo beharko dituzte. Besteak beste, Zizurkil Goia, Aduna, eta azken itzulian Alkizako gaina.

Guztira 150 txirrindulari inguru ibiliko dira eskualdeko errepi-

deetan barrena. Alde batetik, elite mailakoak eta bestetik 23 urtez azpikoak.

Patxi Alkortari omenaldia

Txirrindulari probaren ondoren Patxi Alkortari omenaldia egingo die herritarrek eta hainbat eragilek, Adunako Aburuza sagardotegian. Kirol munduko izen nabarmenak ere bertan egotekoak dira, besteak beste, Jokin Mujika, Pello Ruiz Cabestany, Abraham Olano, Perico Delgado, Karnele Zubillaga eta Josune Gorostidi.

Oinkari dantza taldeak, bertolariak, trikitilariak eta txarangak omenaldiari jaialdi ukitua eman-gotuzte.

Patxi Alkortak lan handia egin zuen txirrindularitzaren inguruan, besteak beste, Orbea, Oria edo Caja Rural taldeak bultzatu zituen. Aiztondo Klasikoa aurre-ateratzeko lanetan ere aritu zen, hasiera hasieratik. Horrez gain, Behar Zana elkarteak lehendakaria izan zen urte luzez, eta beste hainbat kirolari ere sostengua azaldu zion behin eta berri. Igandean omenaldian parte hartuko dutenek, Alkortak egingo dako lan guzti hori buruan izango dute, eta eskertza azaltzeko modu bat izango da eurentzat Adunan elkartzera.

Udaberrian aisialdiak ez du etenik izango

A. Imaz

Zizurkil eta Amasa-Villabonan kultur ekitaldi jantziko dute udaberria. Girotzen joateko, hila-bete guztirako hainbat ekimen antolatu dituzte herritarren gozamenarako, eta aisialdia betetzeko asmoz.

Antzerkia, zinea, musika, kirolak eta bestelako hamaika eskaintza topatuko ditu martxoan, bi he-

rri hauetara gerturatzen denak. Zizurkil, larunbat honetan Txapel Eguna ospatuko dute, eta aurtengo saritua Migel Mari Zurutuza izango da, txapela berari jarriko baitie.

Villabonan, zineaz gain, Mikel Markez eta Erramun Martikorenaren emanaldia azpimarratu behar da, hurbilen ekitaldi hauek aurkitzen baitira. Kantaldian disko berria aurkeztuko dute.

↓ Egitarauak

AMASA-VILLABONA

- **Zinema**
- Hilak 10, larunbata.** 19:30ean eta 22:15ean, *J. Edgar* filma Gurean.
- Hilak 11, igandea.** 17:00etan eta 19:30ean, *J. Edgar* filma Gurean. Leku berean, *Malutatxo* haurrentzako euskarazko zinema, 16:30ean.
- Hilak 12, astelehena.** 21:30ean, ikusleen eguna, *J. Edgar* filma Gurean.
- Hilak 17, larunbata.** 19:30ean eta 22:15ean, *Sherlock Holmes 2* filma Gurean.
- Hilak 18, igandea.** 19:30ean, *Sherlock Holmes 2* Gurean.
- Hilak 19, astelehena.** 21:30ean, ikusleen Eguna, *Sherlock Holmes 2* filma Gurean.
- Hilak 24, larunbata.** 19:30ean eta 22:15ean, *War Horse* filma Gurean.
- Hilak 25, igandea.** 17:00etan eta 19:30ean, *War Horse* Gurean. Leku berean, 16:30ean, haurrentzako zinea: *Los Muppets*.
- Hilak 19, astelehena.** 21:30ean, ikusleen Eguna, *War Horse* filma Gurean.

- **Musika**
- Hilak 9, ostirala.** Mikel Markez eta Erramun Martikorena Gurean, 22:30ean.
- Hilak 31, larunbata.** Eresargi abesbatzaren kontzertua elizan, 19:30ean.

- **Antzerkia**
- Hilak 18, igandea.** Txan Magoa-ren haurrentzako ikuskizuna Gurea antzokian, 16:30ean.
- Hilak 30, ostirala.** Helduentzako antzerkia: *Kafe txinatarra*, Asier Hormaza eta Kandido Urangarekin. Gurean, 22:30ean.

- **Bestelakoak**
- Hilak 13, asteartea.** Mintzolan hitzaldia, 19:30ean. *Nafarroako Erresumaren sorrera, 778/824*.
- Hilak 16, ostirala.** Pizza tailerra Gaztelekuan, 17:00etan. Aurrez eman behar da izena.
- Hilak 20tik 24ra.** Argazki Rallyaren erakusketa. Azken egunean, sari banaketa, 12:00etan.

ZIZURKIL

- **KZgunea**
- Hilaren 8an eta 22an.** Tutoritzak bi egun horietan egingo dira, 16:00etatik 20:00etara. Horrez gain, hilero bezala, KZguneak ikastaroak egiteko aukerak eskaintzen ditu, hainbat maila eta ordutegitan. Informazio gehiago liburutegian.
- **Euskara**
- Euskara zinema aretoetara* programaren barnean, zine emanaldiak ikastetxeentzat:
- Hilak 19, astelehena.** *Horton* filma, Haur Hezkuntzako haurrentzat, 11:00etan, Gurea aretoan.
- Hilak 21, asteazkena.** *Igelak eta zapoak* filma, Lehen hezkuntza, 11:00etan, Gurea aretoan.

- **Gazteria**
- Hilak 17, larunbata.** Eski irteera Luz-Ardidenera. Irteera 05:30ean, Olaederra kiroldegian.

- **Kirolak**
- Hilak 11, igandea.** IX. Aiztondo Klasikoa. Patxi Alkorta Memoriala. Alkizan izango dute irteera puntua txirrindulariek, eta helmuga Larraularen.

- **Bestelakoak**
- Hilak 10, larunbata.** Txapel Eguna. Aurten txapela Migel Mari Zurutzari, *Potxolori*, jarriko zaio.

- Hilak 23, ostirala.** Loatzoko musika eskolako klarineteko ikasle-entzako kontzertua. 17:30ean, Atxulondo kultur etxean.
- Hilak 24, larunbata.** Gazteen Eguna, Txepetxa Gazte Asanbladak antolatuta. Zizurkil Goian ospatuko dute egun osoko festa herriko gazteek. 11:30ean kirol erakustaldia, ondoren, gazte bazkaria, jolasak, bertso poteoa eta kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste.
- Hilak 29, osteguna.** Eskusoinuko ikasleen kontzertua Loatzoko musika eskolaren eskutik. 17:30ean, Atxulondo kultur etxean.

Aizkardiren 44. Mendi Ibilaldian izena emateko aukera zabalik

Izena emateko azken eguna hilaren 23a izango da; ibilaldi luzea edo laburra egin behar den aipatu behar da

A. Imaz Villabona

Villabonako Aizkardi mendi taldeak 44. Mendi Ibilaldia antolatu du hilaren 25ean, igandean. Hamalau orduak egiteko asmoa duten mendizaleek, indarrak neurtzeko aukera polita izango dute beraz hila-beteko azken igandean horretan. Horretarako, ordea, aurrez izena eman beharra dago, eta Aizkarditik bi bide zabaldu dituzte: www.zirkuitua.com webgunea edo 649 71 71 82 telefono zenbakia. Azken honetara, 20:00etatik 22:00ak bitartean deitu behar da, eta astelehenetik ostirala bitartean.



Aizkardiren Mendi Ibilaldia martxoan izango da. HITZA

Izena ematerako unean, federazio-ko lizentziaren, EHNA-ren edo NAN-ren zenbakia eman behar da, izena eta bi abizenekin batera. Horrez gain, ibilbide luzea edo motza egin nahi den adierazi behar da, eta azkenik, federaturik egonez gero, mendi taldearen izena aipatu behar da.

Aurreko urteetan bezala, aurrez ere bi ibilbide mota antolatu dituzte mendi taldeko kideek. Luzeak, 43 kilometroko luzeraren 2.500 metroko penditza edukiko du, eta laburrak, 24 kilometrokoan 1.000 metrokoa. Informazio gehiago www.aizkardi.com webgunean zintzilikatu dute.

Irudia ◊ Berastegi**BERASTEGIKO UDALETXEA BERRITZEN**

Berastegiko udaletxea berritzeko obrekin hasi dira. Monumentu izendapena duen eraikinean egingo dituzten lanek hamar hilabeteko iraupena izango dute, eta 1.500.000 euroko aurrekontua dute. Foru Aldundiak 800.000 euroko diru lagun-

tza eman dio Berastegiko Udalari proiektua burutzeko, eta gainerakoa udalak jarriko du. Egitura, teilatua eta lehen solairua konponduko dituzte lehendabizi, eta diru laguntzak iristen doazen heinean, gainontzekoa berrituko dute...

Euskararen inguruko «gogoeta sakona» egingo dute Leitzaldean

Leitzako udaletxean bilera egingo dute, bihar 18:00etan, orain arte egindakoaren inguruko balantzea egiteko

nahi dugu, eta horretarako orain arte egindakoa aztertuko dugu, gaur egungo egoerarekin batera; behin horiek ikusita, aurrera begira hartu beharreko bidea zehaztuko dugun», dio Anautek.

Hiru ataletan banatuta

Hiru atal ditu prozesuak. Batetik, orain arte egin denaren azterketa; bigarrenean, gaur egungo egoeraren diagnostikoa; eta azken atalak etorkizuneko lan ildoak izango du aztergai. Bada, Leitzan biharko deitutako bilera lehen atalean kokatzen da, beraz, azken urteotan euskara sustatzeko egin den lanaren balantzea egingo da. Bileran gaia eztabaidatu aurretik, baina, galdetegia banatu dute euskara zerbitzutik, norberak

bere gogoeta egin dezan. Hori izango da, hain zuzen ere, prozesuaren metodologia; lehendabizi atalari dagokion galdetegia banatuko dute, eta ondoren, parte hartzaileak bildu egingo dira guztien artean eztabaidatzeko.

Dabid Anautek dioenaren arabera, «lan-saioak edo bilurak irekiak izanen dira, edonork parte har dezake, eta bi orduko iraupena izanen dute». Beraz, bihar, 18:00etan Leitzako udaletxeko batzar aretoan izango den bileran parte hartzera animatzen du herritar oro.

Behin hiru atalak bukatuta, ondorioak idatziz jasoko dituzte, «euskararen alde lanean dabil-tzan pertsona guztientzat tresna baliagarria izan dadin».

Iñigo Terradillos Leizta

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuak euskararen inguruko «gogoeta estrategikoa» egin asmo du. Horretarako, lau herri horietako bakoitzean euskararen inguruan eginikoaren balantzea egingo dute, egungo egoeraren diagnostikoa, eta aurrera begira landu beharreko ildoak zehaztuko dituzte. Leitzan eta Areson hasiko dira ekimenarekin. Leitzan, biharko deitu dute bilera, eta Aresoren kasuan, berriaz, hilaren 15erako.

Dabid Anaut Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuaren ordezkarikari adierazi duenez, «geldialdi» bat egitea erabaki dute, «hausnarketa sakona» egin ahal izateko. «Euskararen inguruan egiten ari garen lanean bide onetik goazen jakin

**Haurraren garunaren garapenez hitzaldia, Ibarako kultur etxean**

Neurozientzian doktorea den Maria Lopez Juezek emango du; etzi izango da, 18:00etan hasita

dia izango da etzi, ostiralean, Benito Izagirre kultur etxean, 18:00etan hasita.

Hitzaldia neurozientzian doktorea den Maria Lopez Juez madrildarrak emango du. Garuneko lesioak eta nahasmen neurologiko arazoak dituzten haurrekin 20 urte baino gehiago daramatza lanean. Gazteleraz izango da hitzaldia, eta irakasleei, hezitzaileei, nahiz gurasoei, eta oro har, «ikasleen gaitasunetan sinisten duen guztiei zuzendua» da.

I. Terradillos Ibarra

Ibarako Uzturpe ikastolak antolatuta, *Haurren garun-garapena*. Antolaketa neurologikoa ikasketara auzoari hartzeko hitzal-

Zeelanda Berrira iristear da Fernandez eta Martinezen ontzia

Hirugarren postuan dago Telefonica ontzia; haizea baretzen bada, postuetan gora egiteko aukera izango dute

gatzaleei bertara iristeko. Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribitarraren ontziaren kasuan, hirugarren postuan dago, Groupama Sailing Team eta Puma Ocean Racing ontzien atzetik. Eguraldiaren iragarpenek diotenaren arabera, haizea baretu egingo da, eta horrek aukera emango dio Telefonica ontziari postuetan gorantz egiteko. Zeelanda Berritik Brasilera izango da hurrengo etapa, probako luzeena.

I. Terradillos Ibarra

Auckland (Zeelanda Berria) da Volvo Ocean Race probaren laugarren etapako azken portua, eta milia gutxi geratzen zaizkie nabi-



Telefonica ontzia, Zeelanda Berrirako bidean, atzo. MARIA MUÑOZ

Hilberriak

PILAR OTERMIN

Atzo hil zen 63 urte ataldu.

Line lotz hartzen, behingandugu familiarren saminarekin

Xabieren zidelo sendiak

Hiru erditore SAUR, ezabaketa, izangarria, P. O. Otermin, Legorretako Salaberrietan.

LEGIORRETA, 2012ko martxoaren 7an

ANDRESA PORTUGAL AROZENA

DONOSTIAKO HIRI MEREZIMENDUAREN DOMINA

2012ko otsailaren 26an hil zen.

- Goian bego -

Donostiako alkateak eta zinegotziek

DONOSTIAN, 2012ko martxoaren 7an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIK

■ **Villabona.** Osoko bilkura egingo dute gaur, 19:00etan. Hondakinen kudeaketari buruko mozioak aurkeztuko dituzte Bilduk eta EAJK, beste gai batzuren artean.

ZINEMA



■ **Tolosa.** Mendi Film Festival jaialdiak sei filma izango dira ikusgai gaur, Leidor aretoan, 19:30etik 22:00ak arte. *The hardest of the Alps, Wild water, Linea continua, The Swiss machine, Next time Inshallah* eta *Hastapenetara itzulera* dira ikusi ahal izango diren lanak.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Gelede maskizeneko erakusketa Topic zentroan ekainaren 10era arte. Afrikako yoruga komunitatean Gelede izeneko zeremonian erabiltzen dituen maskarak dira ikusi ahal direnak.

■ **Alegia.** Nerea Ugarteren sormen lanak ikusi daitezke martxoaren 19ra bitarte, Jubilatuen tabernan.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



**KOLORE
FESTA**

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera, Jon Balerdik, Joxe Ramon Errazkinek, Xabier Goenagak eta Agurtzane Goenagak bidalitako argazkiak ikusi daitezke. Irudi koloretsuak dira, eta guztiak irabazi dezakete Ajangiz herriko Astobieta nekazal turismoan bi laguntzeko gau bateko egonaldia. Egun gutxi falta dira argazkiak bidaltzeko, animatu eta bidali zure irudia thargazkiak@hitza.info helbidera, ostirala, hilak 9, baino lehen. HITZA

Agurrak

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

TX sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta du**

Martxoak 11, igandea
12:30ean
Donostiako Irunbe

**LAGUN ARO GBC
CAJA LABORAL
BASKONIA**

Zoruetan parte hartzeko deia: 943 65 56 95